

DIRU-ITURRIAK

Aplikazioaren diru-sarrerak hainbat iturritatik etorriko dira, proiektuaren iraunkortasun ekonomikoa eta epe luzerako bideragarritasuna bermatzeko. Lehenik eta behin, premium harpidetza-sistema eskainiko da. Erabiltzaileek oinarritzko bertsioa doan erabili ahal izango dute, baina funtzio aurreratuak eskuratzeko premium harpidetza kontratatu beharko dute. Harpidetzaren prezioa 5,99 € hilean edo 59,99 € urtean izango da, eta horrek plan pertsonalizatuagoak, prezio-alertak eta lehentasunezko laguntza barne hartuko ditu.

Bestalde, aplikazioak komisioak jasoko ditu plataformaren bidez egindako erreserben truke. Hegaldien erreserbetan %3ko komisioa aplikatuko da; hotel-erreserbetan, berriz, %8koa; eta jarduera turistikoen kasuan, %10eko komisioa, sektorean ohikoak diren portzentajeei jarraituz.

Horrez gain, bidaia-pakete berezien salmentak eskainiko dira, aplikazioaren bidez zuzenean kontratatze modukoak. Pakete horien prezioak helmugaren eta iraupenaren arabera aldatuko dira, baina batez beste 150 € eta 600 € artekoak izango dira, eta horietan %12 inguruko marjina aplikatuko da.

Azkenik, aplikazio barruko publizitateak ere diru-sarrerak sortuko ditu. Enpresa eta marka kolaboratzaileek iragarkiak argitaratu ahal izango dituzte, kostu bakoitzeko klik (CPC) 0,30 €-koa edo hileko publizitate-paketeak 200 €-tik aurrera kontratatuz.

Diru-iturri horiek modu orekatuan definituta daude, iturri bakar baten menpekotasuna saihesteko, arrisku ekonomikoa murrizteko eta proiektuaren epe luzerako jasagarritasuna bermatzeko.

